

Oskotz,naparroko mendi aldian dagon herri ttiki bat da.Guain

ehun pertson edo hola zango tto.Hotatik gehinak attunak dia gazte askok alde in dutelako.

Azken 20 urti hotan, bizimodua,ohitturek etb..asko aldatu (kanbiatu) dia.Baña halere batzuk mantentzen dia,hoxek bizimoduarekin, (nekazariak dia) edo erlijioakin (katolikoak) zer ikustekoi ttute.

Itxen aldetik,haundik dia, harriz inak,tellatu gorrik korrozpe luzekin, hoko denboa oso hezia bait da ta ere elurte handik botatzen tto.

Itxe gehinak bina atari ttute, batia itxebizitzan sartzeko ta bestia koadrako eskatzian sartzeko.

Itxe bakotxak ere bere izen du.Geinak “-ene” az akatzen dia ta hola dia:Martitsene, Martene, Auzone, Perutxene, Juantxene, Maitone...

Erlijion ondoin dauden kostunbriak:

-Mezatan aurreko aldian gizona kok jartzen dia ta atzeko aldian emakume kok.Guain dela urte gutxi artio, gizonak bankutan sertzen zien ta emakumek ,berriz, aulkitan.

-Hilbeltzak 17-in, San Anton, ganadun zat,pentsue ematen da elizara,apezak bedeinkatu zan.

-Otsailak 2-an argizarik bedeinkatzen dia, gio, udan ostosketa zakar denian pizteko ta hola pensatzen da harri erauntsik ez dula botako edo oinazturek ez dula zer gaiztoik ingo.

-Otsailak 3-n San Blas ospatzen da.

-Apirilak 25-n, sorok bedeinkatzen dia, urti ona izateko.

-Ekainak 24-n, famili bakotxak, iratze malza bana prestatzen du, elizan bedeinkatu t'urrengo urtian erretzeko gorde itten da.Gañetik salto itterakoan (su man ondoin) hau esaten da:

Biba San Juan bezpera

Egun hontan ere lizar zatikin gurutz batzuk itten dia ta ataritan jarri. Leyotan, berriz, sahas adar batzuk. Hau sorginek, sarna ta holakok itxetan ez sartzeko itten dia.

-Abuztuk 10-an, San Lorenzo oreganok bildu ondoren erramo bat in ta bedeinkatzea ematen zen. Gio sekaten utzi ta negun txerrie hiltzerakoan, oregano hoiek atrazen zuten hautsa (polena edo ez takit zer) tripotei botatzen zen. Hau galdu in da itxetan txerrik hiltzen ez delako ia.

Baita galdu da Santu Guztin egunian apezak ematen zuten merendue, mahats beltza ogikin, emakume ta neska mutikontzat ta gaztazarra ta ardoa gizonezkontzat.

Egun hontan hildakoi ez zaizkie lorik jartzen in beharrekok elizan bakarrik itten dia. Berriz San Belario egunian, ekainan, kanposantura bai joaten dela, famili bakotzak duen puska garbitzia, loriak jartzia...

Gau Zahar egunian, itxez-itxe joaten ziren (mutilek bakarrik) puske eske (txistorra, arraultzek..) kantatzen ta Urte Berri On desiatzen.

Igotetan, gauza bia itten da. Egun hontan neskatxa bakotzak oilo bana eman behar die.

Erraneiro aldetik gehinak nekazak munduarekin ta elizakin ze ikustekoi ttute.

-Axurik derrena txintzarri gabe.

-Elur urtia arto urtia.

Hitze dulziak ta putz minek. (Maltzurkeri asko itten dittunari).

-Jainkoa siestan ziola inazua.

-Ondoko behiek esne asko ematen. (Bestin gauzak guriak baño hobiak).

-Zoaz zakurren ipurditik ata. (Zoaz antzarak perratzia).

-Hildakok piztuko tto horrek. (Janari ona denian).

-Nahi ba duzu ondo bizi, gaurko afarie biharko utzi.

-Aho bete -betian asaten du gezurre.

-Bihar izotza, etzi elurre, ba nuen bildurre.

-San Pedrotan katu-pixe hainbat euri baldin bada, gaztaine izango da.

Osasune , munduko ondasune.

-Besten puztanekin euliek kendu.(Gure problemak konpontzeko besteak inplikatu).

6.4.

ARA973